



Udalerako, Batzar Nagusietarako eta Europarako
HAUTESKUNDEAK
2019-V-26
EIBARKO EMAITZAK



9



6



5



1

lehen (2015)

PSE-EE10
EH BILDU5
EAJ-PNV5
Podemos1

UDAL ZINEGOTZIAK



Miguel de los Toyos
PSE-EE



Idoia Sarasketa
PSE-EE



Alberto Albistegi
PSE-EE



Esther Velasco
PSE-EE



Patxi Lejardi
PSE-EE



Patricia Arrizabalaga
PSE-EE



Jon Iraola
PSE-EE



Ana Telleria
PSE-EE



Pedro Escribano
PSE-EE



Josu Mendicute
EAJ-PNV



Alberto de la Hoz
EAJ-PNV



Mertxe Garate
EAJ-PNV



Elena Ibañez
EAJ-PNV



Jon Perez
EAJ-PNV



Amaia Albizu
EAJ-PNV



Gorka Errasti
EH Bildu



Igone Lamarain
EH Bildu



Miren Baranguan
EH Bildu



Jose Angel Gimare
EH Bildu



Ana Fran Astigarraga
EH Bildu



Isabel Fdez. Pejenaute
Elkarrekin Podemos



bista eder

clinica dental - hortz klinika


Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19 20600 eibar

www.bistaeder.es

20 urte baino gehiago zurekin.

Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.



2015eko Podemosen zutabeen irabazik lortutako boto-kopurua ezarri dugu.



Parte-hartzea %67,72koa izan zen atzo, orain dela lau urte baino bost puntu eta erdi handiagoa. Hori bai, apirilaren 28an izandakoa baino ia zazpi puntu txikiagoa.

Alderdietako ordezkariekin berbetan BOTOA EMATERAKOAN

1- Zelan ikusi duzu KANPAINA? 2- Zelako EMAITZAK espero dituzue?



Miguel de los Toyos
PSE-EE

- 1- Kontuan izanik orain dela gutxi beste kanpaina bat izan dugula, kanpaina bizia izan da; oraingoan jendea helarazi beharrekoa tokian-tokiko mezua izan da eta hori lortu dugula pentsatzen dut. Orohar edukazioz jardun dugu, nahiz eta barixakuan herria tokiz kanpo ipinitako kartelekin josi zuten hainbatek.
- 2- Emaizta onak izatea espero dut, baina nahiago dut kinie-larik ez egitea. Egindako kudeaketa zein etorkizunerako gure proposamenak onak direla pentsatzen dut eta orain herritarrei dagokie botoa eman eta erantzutea.



Josu Mendicutte
EAJ-PNV

- 1- Kanpaina asko ibili gara kalean eta jendearen artean aldatetaren aldeko ilusioa badago. Espero duguna da ilusio horrek bozketan isla edukitzea eta jende gaztea mobilizatzea. Kanpaina errespetuz egin dugu, besteek ere bai, orohar, baina gaur ere agertu dira paskin batzuk... hori ez da gure estiloa.
- 2- Aspalditik igartzen dugu Eibarren EAJ indartzeko, gorantza egiteko joera badagoela eta espero dugu tendentzia hori eustea. Orain dela lau urte zinegotzi bat gora egin genuen eta gaur ere gora egitea espero dugu.



Gorka Errasti
EH Bildu

- 1- Alderdi guztiok kalean presente egoteko ahalegina egin dugu, bakoitzak bere baliabideak erabilita, hori oso argi geratu da. Gu EH Bilduren proiektua eibartarregana ailegatzeko ahalegina egin dugu eta espero dugu horrek eragina izatea emaitzetan.
- 2- Irabaztea espero dugu. Gure kanpaina izan da PSOEn 32 urteko gobernu eta gero, eta PSOE eta EAJ-ren arteko pintza eta gero, alternatiba bakarra EH Bildu dela erabazteko eta espero dugu eibartarrek argi izatea boto eraginkor bakarra aldatetarako EH Bildu dela.



Isabel Fdez. Pejenaute
Elkarrekin Podemos

- 1- Kanpaina ona egin dugula uste dut, kalean asko ibili gara eta niri asko gustatzen zait hori. Jendea gerturatu zaigu, Udaleko garbitzaileekin eta beste kolektiboren batekin ere egin gara gure laguntza eskaintzen eta alde horretatik oso gustora ibili gara.
- 2- Irabazteko asmoarekin irtezen gara, baina jendeak emandako babesa nolakoa den ikusteko emaitzei itxaron beharko diegu. Hala ere, babes handia jasotzea espero dugu, Eibarrek aldateta behar du: herri berdeagoa, jasangarriagoa eta feminista-goa behar dugu.



Javier Nuñez
PP

- 1- Nahiz eta kanpaina egiteko bakarrik egon, oso interesgarria eta positiboa izan dela uste dut. Eibarrek eztabaida publikoak bezalako ekimen berriak ipini ditu martxan eta kalean jaso dudana erantzun eta harrerarekin pozik nago.
- 2- Guran konfidantza galdu zutenek berriz guran sinestea espero dut eta, horrela, gauerdia ailegatzeko denarako, PP berriz Udalbatzaren parte izatea.

APARTA, BERRIA, PRAKTIKOA eta GAURKOA
emansl@emansl.es

EMAN CONSULTING, S.L.

- AHOLKULARITZA ETA CONSULTING: - Laborala - Fiskala - Kontablea - Juridikoa
- GIZA ERREKURTSOAK: - Enpresako komenio eta hitzarmenak
- PERTSONALAREN AUKERAKETA

J. Etxeberria, 5 943 200 336 / 943 200 069 Fax: 943 200 342 **EIBAR**
Marqués de Valdespina, 10 943 170 054 Fax: 943 176 901 **ERMUA**

MAILAK TRUST. S.L.
TRANSAKZIO INMOBILIARIOAK
KOMUNITATEEN GESTIOA

- ETXE ETA LOKALEN SALEROSKETA
- ALOKAIURUAK
- BALORAZIOAK
- SUBENTZIOAK
- BANKU KREDITUAK
- TRASPASOAK
- PERITAJEAK
- KREDITU OFIZIALAK

J. Etxeberria, 5 (EIBAR) 943 200 336 / 943 208 778 Fax: 943 200 342
Marqués de Valdespina, 10 (ERMUA) 943 170 451 Fax: 943 176 901



	PSE-EE	EAJ-PNV	EH Bildu	Podemos	PP
Amaña	787 (%63)	131 (%10)	176 (%14)	90 (%7)	48 (%4)
Coliseoa	484 (%30)	514 (%30)	411 (%26)	113 (%7)	52 (%3)
Gerontologikoa	272 (%51)	62 (%12)	130 (%24)	41 (%8)	25 (%5)
Ipurua	741 (%41)	355 (%20)	487 (%27)	151 (%8)	45 (%3)
San Andres	748 (%31)	826 (%35)	579 (%24)	147 (%6)	58 (%2)
Udaletxea	1006 (%35)	809 (%28)	769 (%27)	164 (%6)	101 (%4)
Urki	691 (%48)	258 (%18)	322 (%22)	120 (%8)	38 (%3)
Urkizu	875 (%35)	747 (%30)	550 (%22)	161 (%7)	94 (%4)
GUZTIRA	5.604 (%39)	3.702 (%26)	3.424 (%24)	987 (%7)	461 (%3)

ZENTSOA
21.214

BOTO-EMAILEAK
14.366

PARTE-HARTZEA
%67'72

ABSTENTZIOA
%32'28

D'Hondt legearen aplikazioa Udaleko 21 zinegotzien postuak betetzeko

Lege hori alderdikako zerrenden bidezko ordezkari-tza proportzionaleko hauteskundeetan hautetsiak banatzeko metodoa da, batzbesteko handiena darabilena. Boto guztiak zenbatu eta gero, zatitzaileak kalkulatu dira (zerrenda batek jasotako boto kopurua / banandu beharreko kargu kopurua). Bi balore horien artean dauden zatitzaileekin botoen zatiketak kalkulatu eta gero, karguen asignazioa egiten dazatiketen emaitza handienetik txikienera joanda eta karguak agortzen direnean amaitzen da.

ZATIKATZAILEAK	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
PSE-EE	5.604	2.802	1.868	1.401	1.121	934	801	701	623	560
EAJ-PNV	3.702	1.851	1.234	926	740	617	529	463	411	370
EH Bildu	3.424	1.712	1.141	856	685	571	489	428	380	342
Podemos	987	494	329	247	197	165	141	123	110	99
PP	461	231	154	115	92	77	66	58	51	46

2015eko udal hauteskundeetan bidetik jo dute oraingoan ere PSE-EE garaile zinegotzi bat galdu arren

Lau urteko legegintzaldia amaitu ondoren, aldaketa bakarra izan da gure herriko alderdiek lortutako zinegotzi kopuruari dagokionez: PSE-EEk orain arte zuen hamargarrena galdu du, EAJ-PNVren mesedetan, azken honek bost zinegotzitik seira jauzi eginez. Hala ere, PSE-EE nagusitu da berriro ere, bederatzi zinegotzirekin, EAJ-PNV bigarren geratu da seirekin, EH Bilduk lehen zituen bostekin jarraitzen du eta, azkenik, Elkarrekin Podemos azken lau urteotan irabazik izan duena bereganatu du. Boto-kopuruari dagokionez, PSE-EEk orain dela lau urte baino zortzi boto gehiago eskuratu ditu eta, 5.604 botoekin, erraz nagusitu da udalerako hauteskundeetan. EAJ-PNVk, 3.702 botoekin, orain dela lau urte baino 873 boto gehiago jaso ditu eta, horrekin batera, aurrez aipatutako seigarren zinegotzia. EH Bilduk ere aurreko udal hauteskundeetako boto kopurua igo du eta, 3.424 botoekin, orduan baino 214 boto gehiago jaso ditu. Bost zinegotzirekin jarraituko du datozen lau urteotan.

Podemosek ere irabazik orain dela lau urte baino boto gehiago atera ditu eta orduan 904 izan zirenak 987 bihurtu ziren atzokian, zinegotzi bat izateko aukera berretsiz. PP-k, bestalde, oraingoan ere ez du asmatu Udalean sartzeko ahaleginean eta, gainera, botoak galdu ditu, orduko 552tik 461era pasatzeko.

Hilabete bat ere ez da pasa **apirilaren 28an Espainiako Gorteetarako** hauteskundeak izan zirenetik, baina ez da tarte txikia izan eibartarrok gure botoa aldatzeko erakutsitako gogoarentzat: PSE-EEk apirilean baino 1.298 boto gehiago atera ditu eta EH Bilduk 735 irabazi ditu. Boto gutxiago atera dituzte, ordea, beste hiruak: Podemos izan da gehien galdu duena oraingoan, 1.875 boto hain zuzen, EAJ-PNVk 471 galdu ditu eta PP-k 375.

Eta, egun berean izanda ere, kasu batzuetan ez dira bat etorri Udala osatzeko eta **Batzar Nagusietarako** emandako bozkak. Horrela, PSE-EE nagusitu bada ere Eibarren Gipuzkoako Batzar Nagusie-

tarako, ia mila boto gutxiago lortu ditu gurean (4.635, hain zuzen). Gertutik jarraitu dio esparru horretan EAJ-PNVk 4.325 botoekin, Udalerako baino 623 boto gehiagorekin. EH Bilduk 3.240 lortu ditu Batzar Nagusietarako, Udalerako baino 184 gutxiago. Eta Udalean motz geratu diren Podemosek eta PP-k, horiek bai, gora egin dute Batzar Nagusietarako bozetan: Podemosek 228 irabazi ditu, 1.215era heltzeko, eta PPk 159 gehiago eskuratu ditu, 620raino iristeko.

Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, bestalde, lehen taldeek gora egin dute: EAJ-PNV bi ordezkari irabazi ditu, 18tik 20ra pasatuta; eta EH Bilduk ere gora egin du eta 17tik 18ra pasatu da. Kontrakoa gertatu zaie PSE-EEri (9tik 8ra jaitsi dira sozialistak) eta Podemosi (hauek EAJ-k irabazitakoak galdu dituzte, 6tik 4ra pasatuta). PP-k lehen zuen bakarrarekin jarraituko du. 51 batzarkide horietan ere, beraz, ez da aldaketa askorik izango aurreko lau urtekoarekin alderatuta.

ARGITARATZAILEA
...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera
20600 - EIBAR
Tf: 943-206776 / 943-200918
www.etakitto.eus

BABESLEA
Eibarko Udala

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte

LAN-TALDEA
Ana Aizpurua
Maider Aranberri
Ekhi Belar
Ihintza Fernandez
Julian Fernandez
Silbia Hernandez
Ainara Labado
Ane Lizarralde
Ainara Riveras

ARGAZKIAK
Malen Jainaga

DISEINUA/MAKETAZIOA
Jose Luis Gorostegi

PUBLIZITATEA
Itziar Albizu
Belen Ulazia

TIRADA
6.000 ale

BANAKETA
Mohammed El Ghabali

INPRIMATEGIA
Gertu koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92
ISSN
1132-1679

- DISEINUA ETA SORMENA
- WEB GUNEAK
- RESPONSIVE WEB DESIGN
- IRUDI KORPORATIBOA
- PAPERGINTZA ETA KATALOGOAK
- ERROTULAZIOA
- SEINALEZTAPENA
- BIDEOAK
- ARGAZKIAK
- KARTELAK

*Komunikazio grafikoa,
zure neurritara*

*Comunicación Gráfica
Personalizada*

Estilo Gráfico

Desde 1990-etik

Bidebarrieta, 27 B - 20600 EIBAR

Tel. 943 82 13 00

www.estilografico.com

AZKEN ORDUKO BALORAZIOAK

PSE-EE (Miguel de los Toyos)

2015ean lortu genuen bozka kopuruari eustea lortu dugu gutxi gorabehera, baina parte-hartzeak gora egin duenez portzentaiak behera egin du. Eta parte-hartzean gertatu den gorakadak zeozer eragin dio EH Bilduri, baina batez ere EAJren emaitzetan izan du eraginik handiena, euren jendea gehiago mobilizatzea lortu dute. Emaitzak mahairik mahai eta soseguz begiratu beharko ditugu, Errebalgoarengatik

mahai batzuetan zigortu gaituzte-eta. Bestela, emaitzekin pozik gaude, oraindik ere gehiago garrantzitsua daukagu. Hirutan aurkeztu dut neure burua alkatagai eta 9, 10 eta 9 zinegotzi atera ditugu, beraz oso babes handia daukat eta, horrekin batera, nahikoa legimitate mahai gainean gure proiektua ipini eta beste alderdiak gehituta, denok elkarrekin herriak aurera egitea lortzeko.

EAJ-PNV (Josu Mendicute)

Guretzat emaitza historikoa da. Gure alderdia bakarrik joanda lortu dituen emaitza onenak dira hauek, ez dugu horrelakorik bakarrik inoiz lortu. Beste alderdiek bozkarik galdu gabe guk 1.000 bozka gehiago lortu ditugu. Emaitza bikaina da eta azkenengo urtetako tendentzia oso argia erakusten digu honek. Nik uste dot azken urteetan Eibarren fase berri baten murgilduta gaudela. Hirugarren indarra ginen eta

gaur egun bigarren indarra gara. Argi dago herri honetako alternatiba gu garela. Bozkatu gaituzten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eta, bereziki, bozka eman diguten 1.000 herritar berriei. Alderdikideak ere eskertu nahi ditut, lan handia egin dugulako denok. Foru Aldundirako emaitzak ere onak izan dira, baina, hauek hurrengo egunetan patxada gehiagorekin aztertuko ditugu.

EH Bildu (Gorka Errasti)

Udal hauteskunde hauetako emaitza gazi-goza izan da EH Bildurentzat. 2015eko udal hauteskundeetako emaitzekin alderatuta gora egin dugu jasotako boto kopuruan eta, gainera, Europako Parlamenturako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan gure herrian

EH Bilduk izan dituen emaitzekin alderatuz, Eibarren babes handia eduki dugula ikusi dugu. Ez da nahikoa izan, baina Udalean genuen ordezkari mantenduko dugu bost zinegotzirekin eta indar handiarekin lanean jarraituko dugu beste lau urtez.

Elkarrekin Podemos (Julen Bollain)

Emaitzak ez dira guk espero genituenak, ez dira onak. Azken batean, aurreko hauteskundeetan Irabazik zuen eserleku kopuruari eustea lortu dugu. Eibarrek bozkatu du eta argi dago aldaketarik ez duela nahi, guk al daketa horren parte izan nahi genuen, baina herritarrek argi laga dute PSE-EEK Udalean, dena berdin jarrai-

tzea nahiago dutela. Hala ere, guk ez dugu amorerik emango, badakigu demokrazia bat ez dela bakarrik lau urtetik behin bozkatzera joatea eta herritarrek badakite gure bulegoak zabalik egongo direla beti, bai udaletxean, bai kalean edo beste edozein tokitan, edozein proposamen edo proiektu guri helarazi nahi izanez gero.

PP (Javier Nuñez)

Egia esan behar badut PPrentzat eta niretzat emaitzak ez dira onak izan. Gudan konfidantza izan eta bozka eman diguten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eta aukeratuak izan diren zinegotziak ere zoriondu nahi ditugu. Udalean ordezkari berreskuratu nahi genuen, hau da, zinegotziak lortu,

baina, oraingoan ere ez dugu lortu. Zerbaitetan kale egiten ari gara eta argi dago alderdiak sakoneko hausnarketa egin behar duela, gertatzen ari dena zer den serio eta errotik aztertu. Nik neuk erabakia hartuta daukat eta hurrengo egunetan ezagutzera emango dut.

BATZAR NAGUSIAK

Gipuzkoa

EAJ-PNV (20)	lehen 18
EH BILDU (18)	lehen 17
PSE-EE (8)	lehen 9
Podemos (4)	lehen 6
PP (1)	lehen 1

Bizkaia

EAJ-PNV (25)	lehen 22
EH BILDU (10)	lehen 11
PSE-EE (8)	lehen 7
Podemos (6)	lehen 7
PP (2)	lehen 4

Araba

EAJ-PNV (17)	lehen 13
EH BILDU (12)	lehen 11
PSE-EE (10)	lehen 5
PP (8)	lehen 12
Podemos (4)	lehen 8

NAFARROAKo Parlamentua

Navarra Suma (19)	lehen 17
PSN (11)	lehen 7
Geroa Bai (9)	lehen 9
EH Bildu (8)	lehen 8
Podemos (2)	lehen 7
Izquierda Ezkerra (1)	

Europako Parlamentua

PSOE (20)	lehen 14
PP (12)	lehen 16
Ciudadanos (7)	lehen 2
Podemos-IU (6)	lehen 11
VOX (3)	
Ahora Repúblicas (3)	
Jures per Europa (2)	
CEUS (1)	

Larragest



F. Calbeton
22-24

INMOBILIARIA 690 610 715 **ASEGURUAK** 943 200 795



Tfnoa: 943 74 18 00
Faxa: 943 74 17 60

P.M. Urruzuno, 31 (ELGOIBAR)

Tfnoa. (4 linea): 943 20 16 80

Faxa: 943 20 18 41

e-maila: denolan@denolan.es

Muzategi, 1 (EIBAR)



Muzategi, 1 (EIBAR)

Tfnoa: 943 20 16 80

Faxa: 943 20 18 41